

hitzaurrean kulturak bi aplikazio eremu dituela esaten da: mundua eta munduko gauza garrantzitsuenean. garrantzitsuena gizakia izango litzateke, gu ez garelako beste ezerrentzako baina besteak badira guretzako, eta gu gara gure buruaren helburu. mundua ezagutzea, berriz, garrantzitsua da, mundua gizkiarentzat delako.

gizakia ezagutzeko bi modu daude: antropologia fisiologikoa (naturak zer egin duen gizakiarekin, zer da gizakiaren natura: oroimena adibide hartuta, garunaren prozesu bat da) eta pragmatikoa (pragmatikoa eta ez praktikoa, askatasunarekin lotzen delako, inperatibo kategorikoa mantenduz: askatasuna ez dago egoera hipotetiko baten menpe). azkenak gizakia aske bezala bere buruarekin zer egin dezakeen aztertzen du, edo zer egin beharko genukeen. zentzu honetan gure natura kultibatzea betebeharr bat bezala ulertzen da, ez bakarrik jakintzaren esparru erabilgarri bat.

1. **norberaren buruaren kontzientziatz**

nire niaren erreprentazioa egiteko gaitasuna izateak gainontzeko izakietatik infinituki gorago jartzen nau. erreprentazio horrek egiten gaitu pertsona aske, eta niri gertatzen zaizkidan aldaketa denen kontzientziaren batasunari esker, ez naiz bakarrik pertsona baizik eta pertsona bata eta bera (ez gara bakarrik gertakariak, haien batura gara). honetarako ez da behar "ni" hitzaren erabilera, adimena edukitzearekin nahikoa da, pentsamenduak suposatzen du "ni" bat (descartes: pentsatzen dut beraz banaiz, pentsamenduren zentzu orokorrean). haurraren egoera aipatzen da: ez du bere buruari buruz pentsatzeko gaitasuna, baina bai sentitzekoa.

2. **egoismoaz**

gizkiak niaren erreprentaziora iristeko gaitasuna badu, arriskua du niari gehiegizko garrantzia emateko eta egoismoan erortzeko. hiru egoismo antropologiko mota bereizi daitezke:

- **egoismo logikoa** edo adimenaren egoismoa izango da, eta horrelako pertsonak uste dute beraien juizioa egia dela ezartzeko beste pertsonekin kontrastatu behar, baina egiaztatzea beharrezkoa da diskurtso teorikoan eta horregatik garrantzitsua da luma askatasuna (adierazpen askatasunaren aurrekaria). egoismo mota honen barruan edo muturrean burugogorkeria logikoa dago, iritzi orokorraren aurkako ideiak izatea, paradoxia joera bat izatea. ondo dago besteekin gauzak kontrastatzea, baina oreka behar da horren eta iritzia aldatzeko gaitasuna izatearen artean.
- **egoismo estetiko**a. atsegin eta desatsegin puru bat dago, sentimendu unibertsala: edertasuna da, eta horrek egiten gaitu denak senide. egoista estetikoak ederra dena eta ez dena ezartzeko gaitasuna duela usteko du eta ez du inorekin kontrastatu behar. hau egiterakoan hobetzeko bidea itxi daiteke, gaitasun estetikoak izatearen inguruan ere oker egon daitekeelako.

- **egoismo morala.** guri ezaugunena egiten zaiguna, “egoista” hitzaren erabilerara gehien urbiltzen dena, baina ez guztiz. egoista morala da eudamonista (eu-daimon: ongia eta “kontzientzia” edo intuizioa), hau da, haien askatasunaren determinatzaile gisa zorientasuna jartzen dutenak. zorientasuna bakoitzarentzako desberdina den heinean, ezin izango dugu aurkitu denontzako balioko duen zorientasun eredu bat, eta beraz bakoitzak bere arauei soilik jarraituko die.

egoismo antropologiko hauei egoismo metafisikoa kontrajartzen zaiola aipatzen da, hau da, aztertzen dutenak ea badagoen gure arimarekiko guztiz ezberdina den mundu bat. egoismo antropologikoa eta metafisikoaren arteko desberdintasunak beste obra batean jorratzen dira.

3. errepresentazioen borondatezko kontzientziaz

errepresentazioez kontziente egiteko ahalegina bi klaseetako da, arretazkoa edo abstrakziokoa. lehenengoan kontzientziari berari arreta jartzen zaio, baina hori eten egiten denean ez da abstrakzioa ematen, hau ere kontzientzia aktiboa da eta. abstrakzioarekin gai gara kontzeptuak lortzeko, orokortasuna eskuratzeko gai bihurtzen garelako. orokortasunaren eremu honetan pentsamendua dago, denok eguneroko bizitzan erabiltzen duguna. abstrakzioa arreta baino garrantzitsuagoa da, gure pentsamenduaren gaitasunen askatasunaren isla delako, eta zentzu hortan, bizitzako gaitasun praktikoekin lotzen du. abstrakzio gaitasun hau praktikaren bidez lortzen da.

4. norberaren buruaren behaketaz

jabetzaren, behatzearen eta arreta jartzearen arteko desberdintasuna egiten du:

- jabetzea: oinarritzakoagoa. ondo datorkigu antropologia egiteko, tresna gisa erabili daiteke.
- behatzea: gure buruan egindako hautemeteen elkarjartze sistematikoa. gehiegi beharrea arrisku bat izan daiteke, lilurakerian erori eta errealtatearekin kontaktua galdu daiteke.
- arreta jartzea: batzutan ona da beste pertsonekin tratua dugunean, baina neurri baterarte, gehiegi jartzen badugu pertsona lotsatiak iruditu ahal dugu. honen kontrakoa, arinkeria, norbere duintasunari dagokionez inork ez digula modu okerrean epaituko pentsatzea da.

persona batzuek egiten dituzten ekintzak ispiñu baten aurrean egongo balira bezala egiten dituzte, papel bat errepresentatzen egongo balira bezala. naturalki egiten denean ez da ezer gertatzen, baina asmatutako rola dela ikusterakoan egoera kaltegarria izan daiteke. horrelako egoeren aurrean susmorik ez badugu, egoera naturala iruditu daiteke, baina horrek ez du esan nahi jaiotzetik horrela dela. paragrafoaren helburua: ohartaraztea norberaren buruaren gehiegizko behaketaren arriskuaz, gure burua nahasteko izan daiteke. edozein gauzaren esperientziak egiteko obserbazioak iraunkortasuna izan behar du, eta

horregatik barne esperientziak ez du garrantzirik, bere forma denbora delako. honetaz gain bi kontzeptu aipatzen ditu:

- reflexioa: kontzeptu bat (pentsamendu bat) posible egiten duen barne ekintza. aniztasunaren barnean kontzeptu bakar bat "subsumir". orokorra den zerbaitetan espezifiko bat ikustea ahalbidetzen du.
- aprehensioa: hautemate bat (Wahrnehmung, perceptio), hau da, intuizio (Anschauung) enpiriko bat posible egiten duen harmena (Rezeptivität).

Biak ekintzak dira. Aprehentsioaren kasuan: zerbait hartzeko nolabait onartu egin behar dugu.

5. beraien kontziente izan gabe ditugun errepresentazioez

bi motatakoak bereizten ditu (argiak eta ilunak):

- *ilunak*: ez gara beraien kontziente zuzenean, baina bai zeharka, beraien eraginagatik, hau da, bitartekaritaz. adibidez, Irakurtzen dugunean ez gara hizkiez kontziente, beraien errepresentazio iluna dugu. zatien errepresentazioa nire intuizioan edukiko ez banu ezingo nuke esan zerbait ikusten ari naizenik. beraietaz kontziente ez garen gure zentzumenezko intuizioen eta sentrazioen esparrua neurriezina da (horiei buruzko teoria antropologia fisiologikoari dagokio). esparru horietako gutxi batzuk dira soilik kontzienteak.
- *argiak*: beraietaz zuzenean kontziente gara.

6. norbere errepresentazioen kontzientzian bereizitasunaz eta nahasmenaz

gauza bat beste batengandik bereizteko aski den errepresentazioaren kontzientzia argitasuna da. errepresentazio baten osaketa argi izatea ahalbidetzen duen kontzientzia bereiztasuna da. azken honi esker errepresentazio multzo bat ezagutza bat izatera iristen da.

7. sentsibilitateaz adimenarekiko aurkakotasunean

errepresentazioen egoeraren arabera nire gogoia izan daiteke:

- *Jardulea*. zentzu horretan, ahalmen bat erakusten du.
- *Jasailea*. zentzu horretan, harmenaz osatzen da.

ezagutza batek biak (jardulea + jasailea) biltzen ditu bere baitan elkarrekin lotuta. Ezagutzak edukitzeko posibilitateari ezagutzeko ahalmena deitzen zaio. Bi errepresentazio mota daude:

- *errepresentazioak sentikorrek* dira beraiekiko gogoia jasailea bada (berdin dio subjektuak bere burua edo beste zerbait jasaiten duen). Errepresentazio hauek sentsazioen barneko zentzumenaren pasibitatearen nortasuna dute. Errepresentazio hauek psikologiaren parte dira eta barne esperientziak oinarritzen dituzte.
- errepresentazioak pentsamenduaren ekintza baten ondorio badira *errepresentazio intelektual* deitzen zaie. Errepresentazio hauek aperzepzioaren espontaneitatearen nortasuna dute, logikaren parte den pentsamendua osatzen dute.

Barneko zein kanpoko esperientzia (= ezagutza enpiriko) oro guri agertzen zaigun bezelakoaren ezagutza da soilik, ez bera bere kasa den bezelakoarena. Esperientzian ez baita soilik objektuaren izaera kontutan hartu behar, aitzitik subjektua eta bere harmena ere kontutan hartu behar dira. Subjektuaren harmenaren modua intuizio sentikorra da. Harmen honen izaera formala a priori eman behar izan da: intuizio formal hau barne esperientzien kasuan denbora da. Esperientzia ezagutza enpirikoa denez eta ezagutzak, gogoeta eta, beraz, errepresentazioen batasunaren arau baten arabera egindako aniztasunaren elkarjartzearen ekintzaren kontzientzia eta pentsamendua, oro har, exigitzen dituenek, kontzientzia bi modutakoa izango da:

- *kontzientzia diskurtsiboa* (logikoa deien heinean, araua ematen duelako, aurretik joan behar da). Gogoaren jardunaren aperzepzio purua da, sinplea da. Gogoeta edo erreflexioaren "ni"-ak ez du aniztasunik bere baitan eta judizio guztietan beti bat eta bera da.
- *kontzientzia intuitiboa*. Barne esperientziak osatzen du kontziente izatearen alderdi materiala eta barneko intuizio enpirikoaren aniztasuna, aprehensioaren "ni"-a (beraz aperzeptzio enpirikoa), dauzka barnean.

Beraz, barne esperientziaz ni agertzen naizen bezalakoa ezagutzen naiz (ez nire baitan naizen bezalakoa). Norbere burua ezagutzea besteak ezagutzea baino zailagoa da: askotan gauzak proiektatzen ditugu.

8. ezagutzeko ahalmenaz

Ezagutzeko ahalmenak bi alderdi ditu: adimena eta sentsibilitatea. Lehenak begirune aski jasotzen badu ere sentsibilitateak ospe txarra dauka. Gauza hauek leporatzen zaizkio sentsibilitateari:

1. Errepresentazio ahalmena nahasten duela.
2. Adimena zerbitzatu orde adimenaren gainetik dagoela.
3. Iruzur egiten duela.

Beharrezkoa da adimenak agintzea eta, aldi berean, sentsibilitatea ez ahultzea. Izan ere sentsibilitaterik gabe ez genuke (ezagutzarako) materiari edukiko.

9. sentsibilitatearen justifikazioa lehen salaketaren aurka

zentzuek ez dute nahasten, zentzuek aniztasun bat prestatzen diote adimenari eta adimenak aniztasun hau ordenatu behar du aniztasuna pentsamenduaren arau batean lotuz. Modu hortan barne agerpena zena esperientzia bihurtzen da, eta adimenaren erantzunkizuna da, beraz, gaizki epaitzen badu, ez sentsibilitatearena. Sentsibilitatearen merezimendua da adimenari material aberats bat eskaintzea. Hortik adimenak bere antolaketa eta forma intelektuala erantsiz, errepresentazio zehatzak (kontzeptuarentzat), enfatikoak (sentimenduarentzat) eta interesanteak (nahimenaren determinazioarentzat) eraikitzen ditu.

10. sentsibilitatearen justifikazioa bigarren salaketaren aurka

zentzuek ez dute adimenaren gainetik agintzen. Aitzitik adimenaren esanetara jartzen dira, azken honek erabil ditzan. Zentzuek ez dute judiziorik sortzen. Hori pentsatzea (hau da, barneko zentzumenetik zuzenean datozen judizioak onartzea) entusiasmoa da.

11. sentsibilitatearen justifikazioa hirugarren salaketaren aurka

zentzuek ezin dute iruzur egin ezin dutelako judiziorik egin. Horregatik hutsegitea beti adimenaren aldean erortzen da. Zentzuen ilusioek adimena batzutan barkatzen baina ez justifikatzen dute. Kasu horietan gizakiak ez da zentzuetan akatsik egiten, adimenean baizik.

12. ahalmenez, oro har, ezagutzeko ahalmenari so eginez

zerbait egiteko arintasunak edo erraztasunak (promptitudo) ez du esan nahi ekintza horietan abilezia edukitzea (habitus). Lehenak ahalmen mekaniko gradu jakin bat adierazten ditu ("nahi dudanean egin dezaket": inperatibo hipotetikoa), hau da, posibilitate subjektibo bat adierazten du. Bigarrenak beharrezkotasun subjektibo-praktiko bat adierazten du, hau da, askotan errepikaturiko bere ahalmenaren erabilerarekin lorturiko nahimenaren gradu jakin bat adierazten du ("nahi dut, betebeharrak agintzen duelako": inperatibo kategorikoa).

Beraz, bertutea ezin da lehen puntuarekin azaldu, horrela egingo bagenu bertutea gaitasun baten aplikazioaren mekanismo hutsa litzatekelako. Bertutea, norbere betebeharra gordetzean daukagun sendotasun morala da. Sendotasun hau ezin da inoiz ohitura bihurtu, aitzitik, beti guztiz berria eta jatorrizkoa den bakoitzaren pentsaeratik eratorri behar da. Mekanikoki erraza dena (esaterako, elizaren zeremoniak guztiak) gizaki arrazionalari zail egiten zaio, ekintza horietan erabiltzen den esfortzua ezertearako ez dela ikusten badu.

"Nahi izatea ahal izatea da" (querer es poder) esaldia bi zentzutan uler liteke: moralean eta fisikoan. Lehen zentzuan tautologia bat da: arrazoimenak ezin du lortu ezin daitekeenik agindu. Arrazoimenak agintzen duena egin behar bada egin daitekelako da. Gauza txarrak arinki pairatzera ohitzeari modu faltsu batean bertute baten izena eman zaio "pazientzia".

Jasotzen ditugun gauza onen kontzientzia eta oroimena zailtzen du ohiturak eta horrek "eskergabetasun" deritzon biziora darama.

Ekintza ohikeriatuek guregan sortzen duten nazkak honetan du bere funtsa: kasu horiek gizakiaren alde animala gehiegi agertarazten dutela eta, beraz, gizakiarra dena beste edozein gauza natural bezela instintu bat bailitzan ohikeriatzearen arauarekin zuzentzen duela.

Ohitura: ekintzak errezten ditu. Ohikeria: ekintzak beharrezkoak egiten ditu.

13. zentzuen itxurarekin joko artifiziosuaz

hurrengo itsukeria motak bereizten ditu:

- *itsumena*. adimenak ezinezkotzat jo arren zentzuen lekukotzagatik benetakotzat jotzera behartuak gaudenean gertatzen da.
- *ilusioa*. ustezko objektua benetakoa ez dela jakin arren mantentzen den itsukeria.
- *zentzuen iruzurra*. objektua nolakoa den dakigun bezain laster itxura desagertzen denean.
- *lilura*. gauza bat badela eta ez dela dioen bi judizioen artean zalantza egiten dugunean. Zentzumena kontraesanetan sartzen da.

14. onartutako itxura moralaz

paragrafo honetan onartutako itxura moralaz ari da. esango du gizakiak zenbat eta zibilizatuago izan orduan eta antzerkigileago direla. Atxikimendu, errespetu, apaltasun, eskuzabaltasun itxurak egiten ditugu horrekin besteei iruzur egiteke, besteek itxura horiek onartzen dituztelako.

Itxurak onartzen dira gizakiek papel bat antzeztuz, antzezten dituzten bertute horiek, pixkanaka, errealitatean piztu eta jaiduran landatuko dituztelako. Baina gure joerei (gure barneko elementu iruzurgileei) iruzur egitea bertutearen esanetara jartzea da.

Asperdura norbere existentziak berak gogoaren sentsazioen gabeziagatik sortzen duen nazka da. Asperduran inertziaren pisua sentitzen da, hau da, edozein zereginekiko (gogaitasunarena. Zeregin horiek, ordea, nazka horrekin amaitu lezakete, lana minekin loturik dagoelako, erasotosanuerako (hau da, aurretik nekerik ez duen atsedena) joera natural bat dugulako.

Gainontzekoen on itxurak balioetsi behar dira beraz, errespetua merezi duten errepresentazioen jolas honetatik seriotasun bat eratorri daitekelako, itxuratik benetako ekintza bat, baina ez norberarenak. Azken hau egiten ez duenak joera du damutuz bere burua etengabe zurrizten ibiltzeko.

15. bost zentzumenei buruz

paragrafo honetan bost zentzumenei buruz hitz egiten du, eta esango du ezagutzeko ahalmenaren alde sentikorrek bi zati dituela.

- *zentzumena*: objektua presente dagoenean intuitzeko gaitasuna.
- *irudimena*: objektua presente egon gabe intuitzeko gaitasuna.

beste alde batetik, barneko eta kanpoko zentzumena bereiztuko ditu. bigarrenean giza gorputzan kanpoko gorputzek eragiten dute, lehenean berriz gogoan kanpoko gorputzek eragiten dute. azken hau hautemate ahalmen bat den heinean atsegin eta desatseginaren sentimenduarekiko ezbedina da, eta honi barruko zentzumena deituko zaio.

	atsegina eta desatsegina kontuan hartzen baditu	motak
Barneko zentzu	Barruko zentzua	
Kanpoko zentzu	Sentipena	<ul style="list-style-type: none">- bizi sentsazioak- organo sentsazioak

Kontziente garen zentzumenaren errepresentazioari sentipena deituko diogu sentsazioak subjektuaren (plazer edo displazer) egoeraren inguruko arreta pizten duenean.

16. kanpoko zentzumenez

kanpoko zentzumena bi motatakoa da:

- *bizi sentsazioak*. adibidez errepresentazio sublime batek sortzen duen hotzikara. gorputzean barneratzen dira bertan bizitza aurkitzen den neurriraino.
- *organoen sentsazioak*. 3 subjektiboak baino objektiboagoak (ukimena, ikusmena, entzumena) dira, hau da, intuizio enpiriko gisa kanpoko objektuaren ezagutzarentzat egiten duten ekarpena handiagoa da eragina jasan duen organoaren kontzientzia esnatzeko egiten duen ekarpena baino. beste biak (dastamena, usaimena) objektiboak baino subjektiboagoak dira, beraien bidez lortzen dugun errepresentazioa gehiago da atseginarena kanpoko gauzaren ezagutzarena baino.

Lehenengo kasuan elkar ados jartzea errazagoa da, bigarren kasuan subjektua objektu berdinean batek nola eragiten duen sentitzeko modua oso ezberdina izan daiteke.

17. ukimenaz

zentzumen hau ermamietan kokatzen da eta alde guztietatik ukitzen dugun gorputzaren forma ematen digu. Ukimena da kanpoko hautemate bitartekogabearen zentzumen bakarra.

Horrek ematen dio garrantzia eta, baita, zakartasuna ere. gauza baten azalera leuna den edo ez, bero edo hotz sentitzen den etab. bizi sentsazioak hautematen du.

18. entzumenaz

entzumenari dagokionez, bitartekaritza bidezko hautemate mota bat da. airearen bidez urrutiratuta dagoen gauza bat ezagutzen dugu. Hizkuntzaren kasuan gizakiak pentsamenduak eta sentsazioak partekatu ditzakete. Hizkuntzaren soinuek ez dute zuzenean objektuarekin loturarik (saussure: arbitrariotasuna) eta ondorioz kontzeptuak adierazteko bitarteko idealak dira. Musika (sentsazio hutsezko hizkuntza gisa) bizi zentzumenaren eremuan kokatzen da.

19. ikusmenaz

ikusmena bitartekaritza bidezko zentzumenaren da: begia argiaren bidez eragiten da. Soinua ez bezala argia ez da uhinen bidez barreiatzen, begiaren bidez unibertsoaren handitasunaz eta bere alderdi mikroskopikoaz kontziente gara. Ikusmena ez da entzumenaren bezain ezinbestekoa, baina bai nobleena: ukimenetik gehien aldentzen delako eta bere organoa (begia) gutxien eragina dela sentitzen delako, ntuizio purutik gertu dago.

hiru zentzumen hauek erreflexio bidez objektua gure kanpoko zerbait gisa ezagutzera eramaten dute subjektua. Baina sentsazioa horren indartsua denean non, organoaren mugimenduaren kontzientzia kanpoko objektu batekiko harremanarena baino handiagoa den, kanpoko errepresentazioak barneko errepresentazio bilakatzen dira.

20. dastamen eta usainmenaz

Usaimena eta dastamena objektiboak baino subjektiboagoak dira, eta biak elkarrekin lotuta daude: usainmen txarra dutenek dastamen txarra izan ohi dute.

21. kanpo zentzumenei buruzko ohar orokorra

Dastamena eta usaimena gozatzearen zentzumenak dira (barne irensketa), ikusmena, entzumenaren eta ukimena aldiz, (azaleko) hautematearen zentzumenak dira. horregatik da "nazka", hots, gozatutakoa bide laburrenietatik kanporatzeko (goitika) kitzikapena, sentsazio bital horren bortitza, irensketa hori animalientzat arriskutsua izan daitekelako.

Pentsamenduen partekatzean datzan espirituaren gozatze bat ere egon badagoenez, gogoari pentsamendu hoiak inposatzen zaizkionean, gogaikarria zaigun edukiaz askatzeko senari ere nazka deitzen diogu analogiaz.

Zentzumenak orduan eta beraien gaineko eragin gradu berdin batekin eragin handiagoa sentitu, orduan eta gutxiago irakasten dute. Eta alderantziz, asko irakasteko modu

neurritsuan erasanak behar dute izan. Bizi zentzumena inpresioekiko orduan eta sentikorragoa izan, orduan eta zorigaitzagoa da gizakia. Bere ongizatea bere esku izatearen sentrazioa baitauka.

22. usainmena eta dastamenaren desberdintasuna

usainmena zentzumen eskertzarrekoena eta ez ezinbestekoena da. Ez du pena balio zentzumen hau kultibatzeak. dastamena usaimena ez bezala sozialki erabiltzen da eta hori positiboa da, usainmenaren funtzio antzekoa duen arren,

23. tabakoa

murtxikatzeko tabakoaren erabilerari buruz ohar batzuk ematen ditu. gizakiak bere buruarekin duen denbora pasa bat da, sentrazioak etengabe piztuz. elkarrizketaren ordezkia da.

24. barneko zentzumenaz

barneko zentzumena ez da apertzepzio purua, gizakiak egiten duenaren kontzientzia, hau pentsatzeko gaitasunaren parte da. gizakiak jasaten duenaren kontzientzia da, zein neurritan gizakia bere pentsamenduaren jokoarengandik erasana den. Barne zentzumenaren oinarrian barne intuizio dago, hau da, errepresentazioak denboran duten harremana.

	§ 4	§ 7	§ 24
ni purua	Apertzepzio purua edo reflexioa. Nia pentsamenduaren subjektu gisa.	Apertzepzioaren espontaneitatea, pentsamenduaren (ekintza) emaitza	Apertzepzio purua: gizakiak egiten duenaren kontzientzia
ni enpirikoa	Apertzepzio enpirikoa edo aprehensioa. Nia pertzepzioaren objektu gisa.	Barneko zentzumenaren pasibitatea. Gogoia jasotzailea da bere errepresentazioei dagokionez.	Barneko zentzumena: gizakiak jasaten duenaren kontzientzia

Barne zentzumenaren organoa gogoia edo arima da. Arimak bi modutara iruzur egin diezaguke:

- Barne zentzumenaren agerpenak kanpo agerpen gisa hartzean, hau da, irudimenaren sorkuntzak sentrazioetat hartzean.

- Barne zentzumenaren agerpenak inspiraziotzat (kanpoko zentzuen objektu bat ez den gauza batek eragin duen zerbait) hartzea.

25. zentzumenezko sentsazioen graduzko txikiagotzearen-areagotzearen kausez

Zentzuen sentsazioak beraien graduari dagokionez handitu daitezke:

- *kontrastez.* elkarrekiko desatseginak diren errepresentazioi sentsibleak elkarren ondoan jartzeak sortzen duen arreta da. kontraesana eta kontrastea ezberdindu behar dira. Lehena elkarren aurkakoak diren kontzeptuen batasuna da eta errepresentazio sentsiblea piztu eta handitu ordeztatzeko joera du, kontzeptu baten azpian bi kontzeptu kontraesankor batu nahi dituelako
- *berrizkuntzaz.* honen bidez arreta pizten da eta egunerokotasuna itzaltzen. berria, bitxia edo izkutua delako soilik gauzak jakin nahi izateari jakin-nahia deitzen zaio.
- *aldaketaz.* monotoniak atonia (arreta galera) dakar. Aldaketak hori galerazten du. horretarako lana eta atsedena bereizi behar dira.
- *osotasuneko igoeraz.* errepresentazioen segida gorakor batean (aurrekoa ondorengoa baino indartsuagoa da) tentsio handieneko puntu bat dago eta harat iristea esnagarria da, puntu hori gainditu ondoren, berriz, zentzumenak sorgortzen dute. horregatik, komenigarria da plazerra ematen dizkiguten gauzak pixkanaka hastea igoeraren prospekzioa eduki dezagun.

26. zentzu-ahalmenenaren oztopotze, makaltze eta erabateko galtzeaz

ez da sartuko.

27. zentzu-ahalmenenaren oztopotze, makaltze eta erabateko galtzeaz

ez da sartuko.

28. irudimenaz

Irudimena objektuaren presentziarik gabe ere intuizioak edukitzeko ahalmena da. Bi motatakoa da:

- *produktiboa.* esperientzian aurrez ikusi gabekoa errepresentatzeko ahalmena. Objektuaren jatorrizko (esperientziaren aurreko) errepresentaziorako gaitasuna da. Denbora eta espazioaren intuizio puruak hemen sartzen dira.

- *erreproduktiboa*. urrez izandako intuizio enpiriko bat gogora berriro ekartzeko ahalmena. Gainontzeko errepresentazioak (intuizio enpirikoa suposatzen dutenak) hemen sartzen dira

Irudimen produktiboa ez da sortzailea: ezin du zentzumenezko errepresentazio bat ezerezetik sortu. Irudimenak bere materia zentzumenetatik hartu behar du. Ezin dugu ere gizakiaren gorputza ez den arrazionalitatearen beste irudikatzerik "asmatu".

29. drogei buruz

irudimena piztu edo itzaltzeko drogen erabilerari buruz, ez da sartuko.

30. originaltasunaz

Originaltasuna, kontzeptuei (musikan, adibidez, harmoniari) egokitzen bazaie, genioa da, bestela gogoberotasuna edo entusiasmoa da. Bitxia da izaki arrazional batentzat pentsa dezakegun forma egoki bakarra gizaki batena izatea, eta beste edozein forma sinboloak kontsideratzea.

31. asmamen sentikorraz bere mota ezberdinen arabera

Hiru asmamen (asmatzeko gaitasuna) mota daude:

- *intuizioaren asmamen plastikoa espazioan.*

artista batek gorputzezko irudi bat egin baino lehen irudimenean osatu behar du. Irudi hori, irudimenean osatzen duenean, asmakizun bat da. Asmakizunari, artistak nahi gabe sortzen denean, fantasia deitzen zaio. Kasu honetan ez da artistak irudimena duela, irudimenak du artista.

- *intuizioaren asmamen asoziatiboa denboran.*

asoziazioaren legeak zera dio: maiz elkarren segidan datozten errepresentazio enpirikoek gogoan ohitura bat sortzen dute. Errepresentazio bat produzitzen denean bestea ere sortzean datza ohitura honek. Asoziazio hauek batzuetan oso azkar eta oharkabean doaz, ez dugu jakiten nola pasa garen elkarriketaren hasierako gaitik amaiaerako gaira.

- *errepresentazioek duten jatorri komunetik sorturiko afinitatearen asmamena.*

afinitatea aniztasuna oinarri batetik eratorretatik sortutako batasuna da. Gai bat eta beste gai bat oinarri berdinean batetik ez badatoz elkarriketak, istorioak... ez du afinitatearen batasunik izango. Gai bat eta beste gai bat oinarri komun batetik eratorriak badira baina gaiek afinitatea dute.

32. irudimenaren izaera sortzaileaz

irudimena ez da pentsatzen den bezain sortzailea. Irudimenaren indarrak sorturiko ilusioak buruan daukana kanpoan ikusten edo sentitzen ari dela sinistera eramango gaitu. Adibidez. amildegi baten gainean dagoen baten zorabioa, nahiz eta oinarri sendo baten gainean egon. Batzuk eroaldi batean beraien buruak amildegitik behera botako dituztela ere pentsatzen dute eta beraien buruaren beldur dira.

33. irudimenaren errepresentazioak

Irudimena zentzuak baino aberats eta errepresentazioetan oparoagoa denez, pasio bat eransten zaionean, objektuaren gabeziak objektuaren presentziak baino gehiago pizten du gogoan. artista politikari batek mundua irudimenaren bidez gobernatu dezake, iruditeria eta formalitateek errerealitatearen lekua hartuz, herriaren askatasuna edo berdintasuna eta antzeko lemekin.

34. irudimenaren bidez iraganekoa eta etorkizunekoa rudikatzeko ahalmenaz

ez da sartuko.

35. irudimenaren bidez aurrez ikusteko ahalmenaz

ahalmen hau edukitzeak garrantzi handia dauka, praktika ororen eta gizakiek beraien indarrei jartzen dizkien helburuen baldintza baita. Desira orok gure indarren bidez posible denaren aurrikuspena dauka bere barnean, eta horretarako, iragana erabiltzen dugu batzuetan erreferentziatzat.

36. ez da sartzen

37. ez da sartzen

38. izendatzeko ahalmenaz

Aurrean dagoena (ikurra) aurrikusten denaren errepresentazioa (adierazia) iraganarekin (adierazlea) lotzeko bitarteko gisa ezagutzeko gaitasunari "adierazteko ahalmena" deritza. bi adierazle mota daude:

- *sinboloa*. kontzeptuen bidezko errepresentazioak egiteko erabiltzen diren gauzen irudiak (intuizioak).
- *karakterea*. ez dute beraien kabuz esanahirik eta, beraz, modu ez zuzenean izan daitezke soilik zeinu, adibidez, hitzak.+

ilustrazioa moralitatearen azalpenean arrazoimenari dagozkion kontzeptuak (ideiak) eta sinbolikoa (erlijio kultuak) bereiztea da. bestela, arrazoimen praktiko hutsaren ideal bat idoloekin nahastuko litzateke.

39. ez da sartzen

40. ezagutzeko ahalmenaz, adimenean oinarritzen den neurrian (banaketa)

Adimenari, pentsatzeko gaitasun gisa, ezagutzeko ahalmen gorena deitzen zaio. Sentsibilitateari aldiz, kontrastez, ezagutzeko ahalmen beheragoka deitzen zaio. Adimenak, kontzeptuekin lan egiten du eta errepresentazioen alde unibertsalari, arau batez adierazi daitekena, egiten dio so. Sentsibilitateak adiz, intuizioekin lan egiten du eta banakoari egiten dio so.

Kontzeptuak adierazten duen arauak, hain zuzen ere, intuizio sentsibleko aniztasuna bere esanetara jarri eta objektuaren ezagutzarentzat beharrezkoa den batasuna produzitzen du.

41. ez da sartzen

42. ezagutzeko hiru ahalmen gorenen arteko alderaketa antropologikoa

adimena kontzeptuen bidez ezagutzeko gaitasuna da, hau da, arauen ezagutzaren gaitasuna. arau hauek ez dira naturak gizakia gidatzeko erabiltzen dituenak, natur-senaren bidez gidatuak diren animalietan gertatzen den bezala, gizakiak berak sortzen dituenak soilik. beraz,

- agindupean dagoen etxeko edo estatuaren zerbitzariak **adimena** eduki behar du
- bere kargu uzten den eginkizunarentzat arau orokorra soilik agintzen zaion eta aurrean duen kasuaren aurrean zer egin behar duen determinatzea bere esku uzten den ofizialak **epaimena** behar du.
- kasu posibleak epaitu eta kasu horientzat araua asmatu behar duen generalak **arrazoimena** behar du.

Adimena irakaspenen bitartez kontzeptuekin aberastu daiteke eta araez hornitu. Epaimena ordea, hau da, zerbait arauaren kasua den edo ez ezbedintzea, zin da irakatsi, praktikan jarri soilik. Hori dela eta epaimenaren hazkuntzari "heldutasuna" deritzo. Hau ezin da gainera beste era batera izan: irakasketa oro arauen bitartez gertatzen da. Beraz, epaimenarentzat irakasketa posible balitz, arau orokorrak existitu beharko lirateke zerbait kasua den edo ez ezberdintzeko.

Epai batek arau edo kontzeptu bat (K1) kasu bati dagokion edo ez dagokion ebazten du. Epaimena irakatsi ahal izateak zera esan nahiko luke: beste kontzeptu bat existitzen dela (K2), K1 kontzeptua zein kasutan aplikatzen den eta ez den ebazten duena. Hori irakasterik balego kontzeptu bat (K3) existituko litzateke K2 noiz K1i aplikatu daitekeen esango ligukena eta horrela ad infinitum.

Epaimenak egin daitekeena (teknika), komenigarria dena (estetika) eta egokia dena (praktika) ditu objektutzat. Adimenaren eta arrazoimenaren arteko lotura da epaimena.

43. adimena, epaimena eta arrazoia

beraz,

- adimena arauen ahalmena izango da,
- epaimena partikularra arau baten kasu gisa aurkitzeko ahalmena, eta
- arrazoimena unibertsalek partikularra deduzitzeko gaitasuna eta, beraz, partikular hori printzipioen arabeko eta beharrezko gisa irudikatzeko ahalmena.

44. adimena, epaimena eta arrazoia (II)

epaimena orokortasunari (arauari) partikularra aurkitzeko ahalmena den bezala, zorrotasuna partikularrentzat orokortasuna asmatzeko ahalmena da. epaimena aniztasunean (neurri batean aniztasun berdin batean) ezberdintasunen behaketara zuzentzen da. zorrotasuna aniztasunaren (neurri batean ezberdinaren) berdintasunera zuzentzen da.

Bai bata zein bestearen talentu nagusia antzekotasun eta des- antzekotasun txikiarekin nabaritzean datza. Talentu honen gaitasunari agudezia deritzo. Agudezia da epaimenaren eta zorrotasunaren genus-a.

45. ez da sartzen

46. ez da sartzen

47. ez da sartzen

48. ez da sartzen

49. ez da sartzen

50. ez da sartzen

51. ez da sartzen

52. ez da sartzen

53. ez da sartzen

54. ezagutzeko ahalmenaren talentuei buruz

talentua (natur dohaina) irakats ezin daitekeen ezagutzeko ahalmenaren bikaintasuna da. hiru mota dira:

- _zorrotasun produktiboa
- zolitasuna
- pentsatzeko originaltasuna

Ingenioak edo zorrotasunak hetereogeneoak diren eta irudimenaren legearen arabera (asoziazioaren legea) elkarrengandik urruti dauden errepresentazioak parekatzen ditu.

55. zorrotasun produktiboaz

Atsegingarria, preziatua eta suspertzailea da gauza ezberdinen artean antzekotasunak aurkitu eta, zorrotasunak egiten duen bezala, adimena materiaz hornitzea eta bere kontzeptuak orokor egitea. Epaimenak, aldiz, kontzeptuak mugatzen ditu eta beraien zuzenketari (ez zabalkuntzari) egiten dio ekarpena. Pentsatzeko askatasuna mugatzen duenez ez da oso preziatua. gainera, zorrotasuna burutazioen bila dabil, eta epaimena, aldiz, adikuneen bila.

56. zolitasunaz edo ikerketarako dohainaz

Zerbait aurkitzeko (guregan edo beste lekuren batean ezkutatua dagoen zerbait) askotan nola ongi bilatu jakin behar da, hau da, behinbehineko epaia behar da. zolitasuna egia non egon daiteken epaitzeko gaitasuna da, hau da, hipotesiak egiteko gaitasuna da. Zolitasun hau ezin da irakatsi eta ikerketa bat itsu-itsuan ez burutzea dakar.

57. ezagutzeko ahalmenaren originaltasunaz edo genioaz

asmatzea eta aurkitzea ez da berdina. zerbait aurkitzean aurretik existitzen zela suposatzen da, zerbait asmatzean ordea gauza asmakuntzaren aurretik etzegoela suposatzen da. asmatzeko talentua duena genioa izango da.

Genioa izateko ez da aski gauza asko jakitea, gauzak egiten jakin behar da. Genioak ez ditu bere produktuak kopiatu, jatorriaz produzitu ditu. Eta, azkenik, produzitu duena zerbait eredugarria izan behar da, ez nolanhiko gauza ezdeus bat: bere asmakuntza kopiatzea merezi izan behar du.

Genioaren berezko territoria irudimena da: irudimena sortzaileagoa da eta ez dago, beste gaitasunak ez bezala, arau baten hertsadurapean.

58. ez da sartzen

59. ez da sartzen

60. Bigarren liburua. atsegin eta desatseginareen sentimenduaz

saillkapen orokor bat:

- atsegin sentikorra. barruan zentzumenaren bitartekoa (gozamena) eta irudimenaren bitartekoa (gustua).
- atsegin intelektuala. barruan irudikatu daitezken kontzeptuen bidezkoa eta ideien bidezkoa.

gozamena zentzumenaren bidezko atsegina da eta zentzumenari plazerra ematen dionari atsegingarri deitzen zaio, eta *mina* zentzumenaren bidezko desatsegina da eta mina produzitzen duenari desatsegingarria deritzo. Atsegina eta desatsegina ez dira irabazia eta gabezia bezala kontrajartzen, irabazia eta galera bezala baizik: bat ez da bestearen kontraesana soilik, aurkaria baizik (mina zerbait da, ez ezer ez). sentimendu hauek (atsegina/desatsegina) gure egoeraren sentsazioak gure gogoan duen eraginaren bidez ere azaldu daitezke:

- zuzenean nire egoera uztera bultzatzen nauena desatsegingarria zait, mina ematen dit.
- zuzenean nire egoera kontserbatzera bultzatzen nauena atsegingarria zait, gozamena sortzen dit.

Galdetu liteke ea guregan gozamenaren sentsazioa zerk pizten duen: oraingo egoera uztearen kontzientziak edo etorkizuneko batean sartzearenak. Kantentzat denborak orainetik etorkizunera eramaten gaitu (ez alderantziz) eta sentimendu atsegingarriaren kausa oraingo egoeratik irtetetzeko premia (zein egoeratan sartuko garen jakiteke) izan liteke soilik.

Gozamena bizitzaren sustapenaren sentimendua da, mina berriz bizitzaren eragozpenarena. Beraz, atsegin ororen aurretik mina joan behar da: mina da beti lehenengoa. Horrela ez balitz, lehenengoa atsegina balitz, bizi indarraren etengabeko sustapenak pozak sortutako heriotz batera eramango gintuzke.

Gozamen bat ezin da beste gozamen baten ondoren zuzenean etorri: beharrezkoa da bien artean min bat egotea. Osasuna deitzen duguna, horrelako segida moduko zerbait da. bizi-indarraren oztopatzea -> bizi-indarraren sustapena. Segida hau faltsuki ongizate baten segida bat bezala interpretatzen dugu.

Min positibo batek ekintzara bultzatzen ez gaituenean min negatibo batek (asperdura edo sentsazioen hutsa) bultzatzen gaitu. Kasu horretan nahiago izaten da kaltetu gaitzaken zerbait egin ezer ez egitea baino.

61. asperduraz eta denbora pasaz

Norbere bizitza sentitzea eta gozatzea etengabe oraingo egoeratik irtetetzera bultzaturik sentitzea da. Beraz, oraingo egoera bakoitza behin eta berriz datorren min bat bezala da.

Hemendik dator pertsona kultuek sentitzen duten eta asperdura deritzon sufrimen estugarria (karibearrak, Kanten ustez, sufrimen honetatik aske daude eta pentsatzeko gaitasun eza da horren erantzule).

Denbora mementu bakoitza abandonatu eta hurrengora pasatzeko presio hori azaleratzen joaten da eta bere buruaz beste egitera eraman dezake mota guztietako plazerrak probatu ondoren probatzeko ezer berririk ez daukagula pentsatzen denean. Norbere baitan sentitzen den sentsaziozko hutsak izua sortzen du, norbere buruaz beste egitea baino penagarriagoa den heriotz geldo bat bezala sentitzen da. Kontrakoa ere geratzen da: denbora laburtzen duten ekintzak atsegingarriak dira. Zenbat eta aguroago denbora pasa, orduan eta indarberrituago sentitzen gara.

Norbere bizitzaz zoriontsu eta asebetarik sentitzeko Kanten aholkua: helburu handi bat ondorio gisa duten planifikaturiko ekintzekin denbora betetzea. Gizakia ezin da bizitzan pozik sentitu: ez zentzu moralean (norbere jokarearekin pozik izan) ezta zentzu pragmatikoan ere (norbere abilezia eta zuhertasunaren bidez lortzea espero duen ongi-egotearekin pozik izan).

62. alaitasunerako joeraz

Alaitasunerako joera izatea temperamentu kontua edo printzipio kontua izan daiteke.

Sentsibilitatea eta sentsibilikeria bereizten ditu. Lehena gaitasun edo indar bat da, egoera atsegin edo desatsegina onartu eta, nahi bada, gogotik kanpo mantentzeko. Bigarrena ahultasuna da, gainontzekoen egoerek norberak nahi ez duenean ere eragitean datza.

Modu pasibo batean besteen sentimenduez erasana izatea hurrei tipikoa zaie, ez nagusiei. Umore onarekin egin eta onartu behar dira: jainkoak agindutakoa, lan nekagarri baina beharrezkoak eta heriotza bera. Gauza guzti horiek beraien balio galtzen bait dute umore txarrez eta marmarka egiten direnean.

63. gozatzeko moduetaz

gozatzeko modu bat kultura da, hau da, modu honetako gozamenetan are gehiago gozatzeko gaitasunaren handiagotzea (arte ederrak edo zientziak).

Gozatzeko beste modu bat higadura da: gozatzen jarraitzeko gaitasuna pausoz pauso gutxiagotzen digu.

Gozamena edozein modutan asetzea bilatzen dugula ere maxima nagusi hau jarraitu behar dugu: gozamenean igotzeko aukera inoiz ez istea. Erabat asebeteta sentitzea gogaikarria zaio gizakiari.

64. konplazentzia eta disziplentzia

Gozamena eta mina goragokoak diren konplazentzia eta disziplentzia baten bidez ere epaitzen ditugu gertaerak gure baitan.

- *poztasun mingotsa*. Gertaera atsegingarria izan daiteke baina gertaera horrekin gozatzek disziplentzia sortu dezake.
- *min gozoa*. gauza desatsegina izan arren minak atsegina sortu dezake.

aitzitik, gozamena gozamena izateaz gain atsegingarria ere izan daiteke: pertsona batek ohoragarriak iruditzen zaizkion eginkizunekin gozaten duenean. Era berean, pertsona baten minak disziplentzia sortu diezaioke. Iraindua den batek, irainketaren minaz gain, iraintzaileari izango dion gorrotoa erasiatzen dio bere buruari.

65. gozamenaz irabazi edo merezimendu gisa

Norberak erdietsi duen gozamena modu bikoitzean sentitzen da: lehena irabazi gisa eta bigarrena merezimendu gisa. ongi irabazitako diruak zori jokuetan irabazitakoak baino modu iraunkorragoan pozten du. adibidez, norbera errudun ez den oinaze batek mina eragiten digu, baina norbera errudun den batek tristetu eta jota uzten gaitu.

66. gizaki bati egin ohi zaion oharkizunaz

gure gozamena besteen minekin alderatuz igotzen da eta bere mina besteen min antzeko edo handiagoekin apaltzen da. honek azalpen psikologikoa du: elkarren ondoan jartzen diren kontrako gauzak nabarmenago distira egiten dute. ez du moralarekin zerikusirik, horrela balitz, besteen zorigaitzak nahiko genituzke norbere egoera eroso hobe sentitzeko.

Irudimenaren bidez bestearekin batera sufritzen dugu eta, aldi berean, bestearen zorian ez egoteaz pozten gara. Norbere mina pasa lekioken beste min posible batekin alderatzen dugunean ere arindu egiten da.

67. edertasunerako sentimenduaz

hein batean sentikorra eta hein batean intelektuala den atseginerako sentimenduaz islatutako intuizioan edo gustuan edertasunaren sentimendua dago. Gustua, bere jatorrizko zentzuan, organo batzuek afektatua izateko duten ezaugarri berezi bat da. Bi mota bereizten ditu:

- *gustu bereizlea*. zerbait mingotsa edo gozoa da.
- *gustu estimatzailea*. gozoa den hori atsegina da.

Lehen gustu motak epai orokorrak eman ditzake, bigarrenak ordea ez. atsegina/desatsegina ez dagozkio ezagutzeko ahalmenari, aitzitik subjektuaren determinazioak dira. Gustua edonorentzat baliagarria den arau baten arabera epaitzeko gaitasun sentikor gisa ere

hartzen da; ez, soilik, nire zentzumeneko sentsazioen arabera aukeratzeko gaitasun gisa, bestela atsegina apeta hutsa litzateke.

Arau hori enpirikoa edo a priori oinarritutako izan daiteke. Lehen kasuan ezin du benetako orokortasunik lortu. Badago ordea a priori oinarritua dagoen gustu estimatzailearen araua. Atsegin eta desatseginaren sentimenduarekin gauza baten errepresentazioa nola epaitu behar den ikusterakoan beharrezkotasuna iragartzen duten arauak badaudelako.

Gustuan, hau da, epaimen estetikoan, ez du zuzenean sentsazioak gozamina sortzen, irudimenaren eta adimenaren arteko joko libreak baizik: forma da gozamina sortzen duena, forma da plazerraren sentimenduarentzat arau orokor bat ematea aldarrikatu dezaken bakarra. Gauza baten errepresentazioaren aurrean irudimenak adimenari errepresentazioaren araua ematea lortzen ez duenean, kontzeptu batekin eta beste batekin saiatu arren, errepresentazio eder bat deitzen zaio.

68. sublimeaz

Sublimea bere hedadua edo graduagatik adeitasunikara eragiten duen handitasuna da. Sublimera gerturatzea neurri batean erakargarria zaigu baina beldurgarria ere ba, gure burua sublimea denarekin neurtzen dugunean gure estimazioan ezerezean desagertu gaitzkelako.

Baina norbera sublimearen aurrean babesean aurkitzen denean, gure indarrak biltzen ditugunean eta aldi berean bere handitasunera iritsiko ez garelako kezka dugunean... harridura sentitzen dugu. Objeto sublimearen harrapatzearen saiakera horrek subjektuaren, norberaren, handitasunaren sentimendu bat pizten digu.

Hala ere, objektu sublimearen errepresentazio mentala (deskribapena edo aurkezpena) ederra behar du izan beti. Bestela harridura izu bihurtzen da eta izua etengabeko harriduratik bereizten da, etengabeko harridura harriduraz inoiz asetzen ez den epaiketa bat da.

69. gustuak moralitatea kanpotik sustatzeko duen joeraz

Gustua bere atsegin/desatseginaren sentimendua besteei komunikatzera bideratzen da eta atsegingarria zaio besteei ere bere atsegina/desatsegina atsegingarria/desatsegingarria zaiola ikustea. Atsegintasun honi konplazentzia deitzen zaio. beste edonorentzat orokorrean eta beharrezkotasunez balio duen atseginari edertasuna deitzen zaio. Edertasuna zuzenean, interesik gabe (gauza ederraren existentzian oinarrituriko interesak sorturiko atsegina balitz atsegingarri hutsa litzateke, ez ederra) dugu gustoko. Nolabait, gustua, zentzu honetan, kanpo agerpeneko moralitatea da. Ezberdintasun honekin: zibilizatuak izateak (gustua izateak) moralki ona izatearen itxurari nolabaiteko balio bat ematen dio, moralitateak ordea batere ez.

70. norbera manera onekoa errepresentatzeko modueiz

Gauza bat edo norbere burua zibilizatu, txukun, manera oneko edo leundu gisa errepresentatzeko (guztiak gustu ona izateko baldintzak) bi modu ditu irudimenak:

- *errepresentazio intuitiboan* (ikusmena eta entzumena). pintura, eskultura, arkitektura eta lorezaintza.
- *errepresentazio diskurtsiboan*. oratoria eta poesia.

71. arte gustuaz

Oratoria eta poesia (hitzezko arteak) soilik hartzen ditu kontutan paragrafo honetan (ez arkitektura, eskultura...) hitzezko arteek, besteek ez bezala, gure gogoaren aldarte batean eragin nahi dutelako, aldarte hau zuzenean ekintzara pizteko. Ondorioz, hitzezko arteek gizakia aldatu nahi dute eta hori zen, hain zuzen ere, antropologia pragmatikoa "pragmatiko" egiten zuena.

Poesia gainontzeko arte ederrak baina maila goikoagoa da. Oratoria baino goikoagoa da, aldi berean musika eta tonoa delako. Musika baino goragokoa da, musika poesiaren eramaile den heinean baita soilik ederra. Musikak zentzuei hitz egiten die, poesiak adimenari ere bai.

72. ez da sartzen

73. guramenaz

hurrengo bereizketa egin behar da:

- *guraria*. autodeterminazioaren efektu gisa irudikatutako etorkizuneko gauza baten errepresentazioaren bidez egindako subjektu baten indarraren autodeterminazioa da.
- *joera*. ohiko gurari sentikorra da.
- *desira*. objektua produzitzeko indar erabilpenik gabeko nahia da.

Subjektuak arrazoimenaren bitartez menderatu ezin duen edo menderatzea zaila duen joera grina da. Subjektuan hausnarketa (sentimenduari jaramon egin edo aurre egin behar diogun esaten duen errepresentazio arrazionala) sortzen uzten ez duen momentuko egoera batekin lotzen dugun atsegín edo desatsegín sentimendua, afektua da.

74. afektuez beraien grinarekiko kontraizartzean

afektua gogoaren osaera/egitura ezerezten duen sentimenduaren bidezko ezusteko bat da, eta azkar hazten da hausnarketa ezinezkoa egiten duen sentimendu gradu bateraino.

flema zentzu onean: jarduteko bultzagaien indarraren txikiagotzerik gabeko afektugabezia. Hausnarketa lasaiekin afektuen intentsitatearengatik ez ateratzeko gaitasuna da.

haserrea afektu bat da, haserreak azkar egitera bultzatzen ez bagaitu ez dugu gero egingo eta ahaztu egingo zaigu. gorrotoa, ordea, grina bat da, denbora behar da grina hori sortzeko eta gure sakonean sustraitzeko. zerbait maitatzea afektua da eta gauzak diren bezala ikusteko gaitasuna ez digu kentzen. Maitemintzea ordea grina da eta maitemindua garen gauzaren akatsak ikustea eragozten digu.

75. afektui buruz, zehazki gogoaren gobernatzei buruz

eskola estoikoaren apatiaren printzipioa, hots, pertsona jakintsua ez dela inoiz afektatua izan behar (ezta bere lagun hobereenaren zoritxarrekin ere), printzipoi zuzen eta gorena da. gaitasun hori naturaz dugunean 8. diapositiban aipaturiko flema izango genuke.

Sentimendu jakin baten intentsitatea ez da afektu bat afektu egiten duena, sentimendu hori sentimendu guztien baturarekin egoera baten kontestuan jartzeko hausnarketa gabeza baizik.

76. afektu ezberdinez

gauden egoeran irautera bultzatzen gaituen sentimendua atsegingarria da. Egoera hori uztera bultzatzen gaituena berriz desatsegingarria. Egoera atsegingarriari kontzientzia gehitzen bazaio gozamen daukagu, eta desatsegingarriari kontzientzia gehituz des-gozamena. bata poza da eta bestea tristura.

Neurririk gabeko pozak eta tristurak bizitza arriskua jarri dezakete. Lehenak bigarrenak baino gehiagotan. Larritasuna zehaztugabeko kalte batekin mehatsatzen gaituen gauza bati diogun beldurra da. Haserrea kalteari aurre egiteko indarrak agudo abiarazten dituen izu bat da.

77. koldarkeriaz eta ausardiaz

Norbere buruaz beste egiteko bi arrazoi aztertzen ditu:

- Norbere ohoreari (ohore galerari) ez iraunbizitzeko egiten denean. adoretua dirudi.
- Sufrimenduaren aurrean tristurarengatik pazientzia agortu delako. adoregabea dirudi.

Ausardia betebeharrak agintzen duen horretan bitzitzaren galera bera ez sahiestea eskatzen duen legearen arabera da. Ausarta izateko baldintza beharrezkoa da akasgabatasun morala.

78. beraien helburuari so eginez ahultzen diren afektuez

Haserreak eta lotsak beraien helburuarekiko beraien burua ahultzeko joera dute. Sortzen duten sentimendu bortitza dela eta ez dute lortzen beran iturburua den gaitzari aurre egitea.

Lehena arimaren disziplinaren bidez desohitu daiteke, ohituraren bidez kendu daiteke. Bigarrena ordea ez da horren erraz amarruen bidez desagertarazten: lotsa galtzeko modu bakarra publikoaren aurrean ausarkeriaz agertzea da, baina honek huts egiten badu are lotsatiago bihurtzen gara.

beste alde batetik, harridura pentsamenduen joko naturala hasieran eragozten duen gero ordea pentsamenduen jariora bultzatzen duen gogoaren asaldura da. Txundidura perzibitzen duguna esna edo lotan gertatzen ari ote den ziur ez gaudenean sentitzen da.

79. Beraien bidez naturak osasuna mekanikoki sustatzen duen afektuez

afektu batzuen bidez naturak mekanikoki gure osasuna bultzatzen du, esate baterako, farreak eta negarrak. haserreak digestioa egiten laguntzen du, baina arazoa da haserrearen ondorioz errieta egiten diegun pertsonak guri aurre egin liezaguketela.

- Intentzio oneko farrea (makurtasun edo samintasunez betea ez dena) preziatuagoa eta osasuntsuagoa da. Farreak, airea kolpekadaz kanpora ateratzeko behar den diafragmaren mugimendu osasungarriari esker bizi-indarren sentimendua areagotzen digu.

80. grinez

grinak gogoeta bareenarekin bateragarriak dira eta, beraz, arrazonaketarekin batera gertatu daitezke, afektuekin ez bezala. grinek ez dute hobetzeko joerarik erakusten, subjektuaren maxima bat suposatzen dute beti: joerak ezarririko helburu baten arabera jokatzea. subjektuaren arrazoimenarekin lotuta dago beraz beti eta, ondorioz, ezin da esan animaliek grinak dituzten.

81. grinez eta arrazoimenaz

Grinak minbizi-kalteak dira arrazoimen praktikoko puruarentzat eta gehienetan ezin dira sendatu. Grinak arrazoimenak eremu praktikosentikorrean erabiltzen duen oinarritzko printzipio honen aurka doaz: orokortasunetik partikularrera joatea edo joera bat betetzeagatik gainontzekoak ez alboratzea. Arrazoimena instrumentu huts gisa erabiltzen dute grinek.

Grinak, beraz, txarrak dira. Helburu on edo bertutetsu bat duen gurari bat grina bihurtzen denean moralki zerbait arbuigarria bilakatzen da. Afektua askatasunaren eta norbere buruaren menderatzearen une bateko etendura da. Grinak biak (askatasuna eta norbere buruaren menderatzea) bertan behera uzten ditu epe luzean, esklabu izatean aurkitzen du bere plazerra.

grinen banaketari dagokionez, grinak naturalak (jaiotzatikoak) edo kulturatik eratorriak (eskuratuak) izan daitezke. lehenak askatasunerako eta sexurako joera dira, biak afektuekin lotuak daude. bigarrenak, “kulturalak”, ohore-zaletasuna, menderatzezaletasuna eta eduki-zaletasuna dira. Ez daude afektu batekin lotuta, helburu batera zuzendutako maxima batekin baizik.

82. askatasunerako joeraz grina gisa

natura egoeran aurkitzen den gizakiak duen joerarik bortitzena da, beste baten aukeren mende soilik zoriontsu izan daitekeena (beste hau izan bedi nahi bezain bihotz onekoa) arrazoiz zoritxarreko sentitzen da. izan ere, zerk ziurtatzen dio ongizateari buruz duen epaia/iritzia besteak ere partekatuko ote duen? Pertsona basatiarentzat, oraindik men egiteari ohitu ez denarentzat, ez dago men egin behar izatea bezalako zoritxarrik. Arrazoiz gainera, lege publikoek babesa ematen ez dioten bitartean.

Haurrak ere, jaiotzen denean egiten dituen negarrak, berarekin dakarran askatasun joera agerian jartzen du: bere gorputz-adarrak oraindik erabiltzeko duen ez-gaitasuna bortxa bezala sentitzen baitu. Animalien joera bortitzenei ez zaie grina deitzen, arrazoimenik ez dutelako, eta grina askatasunarekin duen talkarengatik definitzen delako.

Grinak gizakiei zuzentzen zaizkie eta gizakien bidez soilik asebetetzen ahal dira. Grinak bitartekaritzarik gabe (zuzenean) xede bati dagozkion joera guztiak asetzeko bitartekoen eskuraketara soilik zuzendutako joerak direnez arrazoimen itxura bat dute. Hau da, grinek askatasunarekin loturiko gaitasun baten bila (gaitasun honen bidez lortu daitezke soilik helburuak orohar) joatean ideia itxura dute. Grina hauek ohore-zaletasuna, menderatze-zaletasuna eta eduki-zaletasuna dira.

83. Mendeku gurariaz grina gisa

Mendeku guraria justizia gurariaren analogon bat da. Azken hau kanpo askatasunaren kontzeptutik ondorioztatzen da. Justizia gurariari grina gehitzen zaionean sortzen da mendeku guraria. Justizia guraria arrazoimen praktikoak nahimenari ezartzen dion determinazio-funts bat da.

Mendeku guraria ordea zerbait txarra da eta norbere buruaren maitasunaren suminkortasunaz (suminkoratasuna ez bidegabekeriarekiko, guri egindako gauza bidegabearekiko baizik) gertatzen da. Ez du edonorentzako legegintza unibertsal bat xerkatzen.

84. Beste gizaki batzuen oro har eragina izateko ahalmen-joeraz

joera hau arrazoimen tekniko-praktikotik (zuhurtasunaren maximatik) gertuen aurkitzen den joera da, pertsonen joerak norbere mende eduki nahi izatea (norbere asmoetara gidatu eta determinatzeko) gainontzekoak tresna gisa soilik eduki nahi izatea da. ez da harritzekoa horrelako ahalmen bat eduki nahi izatea grina bat bilakatzea. Ahalmen hau hiru gaitasunetan bereizten da: ohore, botere eta diru gaitasuna.

Beraien bidez lortzen da gizakiak gure asmoetarako erabiltzea. Joera hauek grinak bihurtzen direnean hurrengoak sortzen dira:

- *ohore-zaletasuna*. gizakien iritziaren bidez beraiengan eragina izateko ahulezia bat da.
- *menderatze-zaletasuna*. gizakien beldurraren bidez beraiengan eragina izateko ahulezia bat da
- *eduki-zaletasuna*. gizakien interesaren bidez beraiengan eragina izateko ahulezia bat da.

Hiru kasu hauetan gizakia bere joeren zepoan erortzen da eta bere azken helburua huts egiten du.

85. ohore-zaletasunaz, menderatze-zaletasunaz eta eduki-zaletasunaz

ohore-zaletasuna. ez da ohore-maitasunarekin nahasi behar (norbere barne balio moralarengatik gizakiak espero dezaken estimazioa), ohore-zaleari itxura bera aski zaiolako. Harrotasuna aski da losintzatzea grina honen bidez (hau da harrotasunaren bidez) pertsona horrengan boterea izateko. Zentzu honetan harrotasuna bere helburuen aurka doan ohore-guraria da eta ezin da esan gainontzeko gizakiak bere helburuetara erabiltzeko bitarteko bat denik.

menderatze-zaletasuna. grina hau bidegabea da berez eta bere gauzatzeak dena bere aurka jartzen du. besteengandik menderatua izateko beldurra du bere hastapena. Menderatze-zaleak botere harremanetan abantaila egoera bat (indarraren pribilegioa) edukitzeaz arduratuko da: hori ez da ordea bidezkoa eta batzuetan bere aurkako matxinadak pizten ditu.

edukitze-zaletasuna. Diruaren asmakuntzak (berezko erabilerarik ez duenak) eduki-zaletasun bat sortu du edukitze soilan botere bat daukana. Ohore-zaletasunak gorrotagarri eta menderatze-zaletasunak beldurgarri egiten gaituen bezala, edukitze-zaletasunak mespretxagarri egiten gaitu zentzu moralean.

86. ez da sartzen

87. ongi fisiko gorenaz

egoera osasuntsu batean zentzumenen gozamen handiena, nazkarik eragiten ez duena, lanaren ondorengo atsedena da.

Natur bulkada indartsuena, giza generoa gidatzen duen eta fisikoki munduaren hoberena dena orokorrean hornitzen duen arrazoimena ordezkatzeko duena, (norbere) bizitzari maitasuna eta generoari maitasuna dira. Lehenak indibidua kontserbarazten du, bigarrenak giza generoa.

88. ongi moral-fisiko gorenaz

ongi morala eta ongi fisikoa ez dira elkarrekin nahastu behar, bestela elkar neutralizatzen direlako eta benetako zorientasunaren xedea lortzen laguntzen ez dutelako. Aitzitik, beraien borrokan ongi bizitzeko eta bertuterako joera eta bigarrenaren printzipioek egindako lehenaren printzipioen mugaketa, modu moralean intelektuala den pertsonaren xede osoa egiten dute.

gizatasuna beste pertsonekin dugun tratuan ongi-bizitzeko eta bertutea batzen dituen pentsatzeko modua da. Ongi-bizitzeko joera bertutearen legeekin nola mugatzen dugun da funtsezkoa.

Humanitateari hobekien egokitzen zaion ongi bizitzeko lagunarte onean egindako bazkaria da. Mahaikideen helburua ez da izan behar gorputzaren astebetetzea, gozamen soziala baizik. Gizartekoitasuna bultzatzen duen gauza oro bertuteari ongi datorkion jantzi bat bezala da. Ziniko baten purismoa edo anakoreta baten aszetismoa, gizarte bateko ongi bizitzeko gabe, bertutearen forma desitxuratuak dira eta ez dute bertutera bultzatzen/gonbidatzen.